

ehbildu

Ikasturtearen hasierari begira alderdiak eta eragileak bildu eta behar diren neurriak aztertzeko deia egin du Aiarako EH Bilduk, ikasleen, familien eta profesionalen segurtasuna bermatzeko

Beste kutsatze-bolada baten erdian, osasun-egoerak ziurgabetasunez beteriko ikasturte berria marrazten du pandemiaren ergainez. Testuinguru horretan, aurrez aurreko eskolak egoerarik onenean burutu daitezten, Udalak zenbait neurri har ditzakeela uste dugu Aiarako EH Bildun, ikasturtea ahalik eta osasun-segurtasun handienarekin has dadin (kutsatze berriak saihestuz), balizko konfinamenduen aurrean, Internetarako konekzioa bermatzeko (bai baliabide gutxiago dituzten familientzat, zein gure udalerriko hainbat eremutan seinale-arazoak ditzutenentzat, baita pandemiaren gorabeherak familia eta lan kontziliazioa zigor ez dezaten saiatzeko.

Hezkuntza Sailak ezarritako segurtasun-distantziei eta desinfekzio-protokoloei buruz emandako jarraibideak ikastetxe bakoitzaren esku utzi direnez eta ikastetxe bakoitzak dituen espazioen arabera egoera desberdinak sor daitezkeenez, Aiarako EH Bilduren ustez, beharrezkoa da gaia mahai gainean jarri eta udal taldeek, ikastetxeko zuzendaritzak eta guraso elkarteak egoera bere osoatasunean aztertzea, Udalak zeintzu neurri har ditzakeen adosteko, ikasturtea ahalik eta baldintza onenetan has dadin ikasleentzat, familientzat eta ikastetxean lan egiten duten irakasle eta irakasle ez diren profesionalentzat.

Gure ustez, premiazkoa da egoera mahai gainean jartzea, ezarritako neurriek gure ikastetxeari nola eragiten dioten ikustea, eta guztion artean lantzea hainbat egoeratarako irtenbideak aktibatzeko, dela espazioen beharrari heltzeko, dela garbiketa eta desinfekzioa indartzeko...